

Bilbo 1960

Arestiren omenaldi aroa hasi da. Baina gure bihotzean bere liburuak ere badaude

JON KORTAZAR



Gure kultur egutegian markatuta dago ekainaren 5eko eguna, Gabriel Arestiren heriotzaren data, Bilboko poeta handia gogoratzeko unea. Aurton, gainera, 41 urterekin joan zitzaigun idazlearen oroimen urtea dugu, hil zela 50 urte betetzen baitira.

Erakundeak enbor

Horrela, aste honetako prents-aurrekoan, Euskaltzaindiak, Gabriel Aresti katedrak eta Gabriel Aresti Fundazioak aurkeztuko dute poeta omentzeko prestatu dituzten ekitaldien zerrenda. Horien artean, udako ikastaro batean bere lana azaldu eta iker-tuko da, 'Gabriel Arestiren mandatu' deituriko liburua argitaratuko, eta beste ekimen sorta luzea egingo dute.

Egia da hasi direla Arestiren omenaldiari eta oroimenari eskainitako ekitaldiak: Bilboko Udalak berriro jarri zuen Arestiren 'Kale Artean' («Ascaotik Sendejara» hitzekin hasten dena) poemaren plaka oso «mehar, ilun eta laburra» den Esperantza kalean. Beste alde batetik, EHKSek egun bakarreko programa ireki zuen Bilbon, goizerako euskararen egoerari buruzko hitzaldiak antolatu ziren eta arratsaldean 'Bigarrenez Aresti etorkizunaren aurrean' antzezlan estreinatu zuten. Bizkaiko Foru Liburute-giak ere hitzaldi zikloa antolatu du 'Gabriel Arestiren aurpegi anitzak' izenburupean, poesia, komikia eta antzerkia aipatuz.

Baina, zalantzarik gabe, hiru kultur erakunde horiek gure kulturaren enbor dira.

Irakurketaren omenaldia

Askotan esaten dut horrelako omenaldiak egiteko aukeran testua dagoela bihotzean, testurik gabe ez dagoela poetarik, ezta omenal-dirik ere. Eta horregatik itzuli naiz bere poemetara. Ekitaldi horiek heltzen diren bitartean, poetaren testuetara itzuli naiz eta niretzat behin eta berriz irakurtzen dudana dudana poema.

Aspaldi txunditu ninduen 'Harreri eta Herri' poema liburuan Gabriel Arestik argitaraturiko 'Souvenir d'Espagne pour Mesdemoiselles Solanje et Helena Gereziaga' testuak. Han dira lau pertsona Bilboko Arte Ederretako Museoa, Pinturaren Museoa, Arestik poeman deitzen dion moduan. Bilboko pertsona bi, burgesiaren ikurra den «kapela zuria

zeraman gizona» eta poeta. Eta, agian, Iparraldetik etorritako ahizpa bi. Horregatik daramate «souvenir» bat etxera, baina ez turistik eramaten duten ohikoa, ez. Begien aurrean dutena eramango dute oroigarri, eta mingotsa da guztiz ikuspegi hori.

Aurkakotasunean oinarritu du poetak testua. Burgesa eta bera, gizonak eta emakumeak, ahizpak; hemengoak eta kanpokoak. Eta saminagoa dena, Museoa eta «Zer da hori?» galderak erakusten duen Bilbok bizi izan zuen bikoiztasuna. Aberastasuna, Museoa eta Jesuiten Unibertsitatea; eta pobrezia. «Ez, hangoa. Egurrezko etxe haek»: txabolak. Etxolak gaur egun Guggenheim dagoen tokian, kanpotik etorritakoak (poetak «Ijito» deitu dituenak) bizitzari eusten. Zubirik ez duen gizarte desberdintasunen amildegi pasaezina.

Urteen buruan ikasi dut Poli-

Askotan esaten dut horrelako omenaldiak egiteko aukeran testua dagoela bihotzean

karpio Fernández Azkoagak mezu berbera eman zuela 'Bilbao?' (1960) deitu zuen pelikulan. Azkoagak ere zati bitan banandu zuen begien aurrean zuen Bilbo. 'Lo conocido' atalean Doña Casilda Parkeko Bilbo jarri zuen kamara aurrean: umeak jolasten, etxeko neskameak umeak zaintzen, larrosak eta kotxeak, Bilbo aberatsa. Eta 'Lo ignorado' atalean, aldiz, etxoletako Bilbo, txiroa eta tragi-koa. Han ikusten dira umeak soinekorik gabe, etxolak ez argirik ez urik ez dutela, gizakiak etorkizunik gabe. Mundu bi hain hurbil ikusiz eta hain aurrez aurre jarritz, zuzenbide debekatuaren aurka bere kamera jasoz.

Bilbo bi aurrez aurre, edo, hobeto, lepoz lepo. Batak bestea ikusi ezinik. Begien aurrean zegoena isilaraziz, itsuarena eginez, ukatuz... Horixe izango da Solanje et Helena Gereziagak etxera eramango duten irudia, souvenirra.

Gabriel Arestik, ordea, etorkizuna hartu du kontutan, eta poema bukatzeko kopia zaharraren teknika erabili du, baina moldea alderatuz. Lehenik aipamen erreala, ondoren irudia. «Hurrutian entzuten zen trumoiak./ Grekoa. Goia». Entzuten da trumoiak, laster aldatuko da giroa. Laster da gure artean ekaitza, laster da egoera aldatuko duen iraultza.

Benetako historiaz

JON MARTIN-ETXEESTE

Atapuercako indusketatan berreskuratutako hezurren artean desgaitasun batekin jaiotako neskatala baten garezurra agertu zen: Benjaminak 10 urtera arte biziraun zuen tribuaren zaintzari esker. Duela 90.000 urte, berriz, ama neandertala eta aita denisovarra zuen neska bat bizi izan zen: Denny. Duela 3,2 milioi urte Astralopithecus afarensis-ak dagoeneko zutik ibiltzen zirela frogatu zuen Lucyren hezurdurak. Leizeetan marraztutako arrasto gehienak emakumeek eta haurrek koloretatu zituzten. Historia liburuetan eta ikastetxeko testu liburuetan, ordea, 'homo' baino ez genuen irakurri haurrak ginenean. Historikoki, gizonak ordezkatu du gizakia; non geratu da emakumeen historia? Liburu honek Flores-eko emakumeaz hitz egiten du, haiek lurpetik ate-

ra zituzten sei espeleogoez, erditzeko unean txinpantzeen aldakak eta gizakia- renak dituzten ezberdintasunez, botere kargu gorenak izan zituzten zibilizazioe- tako agintariez eta ezarritako rolei aurre egin zieten emakume inspiratzaileez.

Kolore biziak eta estimulu askoko orrialdeak diseinatu ditu Rodriguezek. Zehaztasun zientifikoz, labor eta egoki kontatu du Yustosek Kataluniako Giza Paleoecologiaren eta Gizarte Garapena- ren instituzioak ontzat emandako historia. Protogizaki antzinakoenetik (Ardipithecus ramidus) Femina Sapiensera- ko bidea markatzen du liburuak. Uga-

tzei zentralitatea emateaz gain, bistakoa ikuspuntu osagarria emateko asmoa ere: kapazitismotik soilik abiatzen ez ikuspuntua sumatzen da, ezohiko aniztasun fenotipikoa dago eta Ozeania- zentrista den mapa ageri da. Badira, ordea, norabaide horretan urratu gabe geratzen diren bideak: aipatutako mapan iparraldeak dagokion baino handiagoa izaten jarraitzen du eta gizakiekin berriaz bilatu den feminizazioa ez da aplikatu primateetan (gorila, orangutan eta mandril arrak irudikatu dituzte).

FEMINA SAPIENS MARTA YUSTOS/DIEGO RODRIGUEZ Tarttalo, 48 or. 22,00 euro



Berbekin jolastuz

PALOMA RODRIGUEZ-MIÑAMBRES

Aforismoek beti izan dute prestigioa literaturan, izan ere, hitz gutxitan adiera oso eta sakonak laburbiltzen dituzte, poesia- ren eta filosofiaren arteko mugan kokatzen direlarik. Esakuneen antzera, gogoan- garriak izateko bokazioa. Horrenbestez, hizkuntzaren ekonomia eta laburtasun hori erakargarri suertatzen dira, adimenaren eta munduan habitatzeko modua- ren gainean hausnartzera akuilatzen baikaituzte.

Ez da genero erraza, paradoxan, kontraesanean eta irakurleen pentsakizunak beste ikuspuntu batetik astintzean finkatzen baitituzte beren oinarriak. Oihane Zuberoa, alabaina, osorik eta onik ateratzen da aforismoak idazteko erronkatik bere hirugarren liburuan. Filosofia eta poesia- ren arteko lotura bete egiten du; alde batetik, poeta saritua da, Iruña Hiria Poesia Saria irabazi baitzuen 2020an eta Lauaxeta Poesia Saria 2023an bere aurreko bi liburuekin. Beste aldetik, filosofiako ira-

APURKINAK OIHANE ZUBEROA GARMENDIA Pamiela 72 or. 15 euro



kaslea da bigarren hezkuntzan.

Argi geratzen zaigu bi esparru horiek ongi elkarlotzen dakiela, polisemiari eta hitz-jokoei arreta handia jartzten baitie. Hizkun-tzarekin jolasteko –eta gozatzeko– gogo nabaritzen zaio: «nerabezaroa herabezaroa» (45 or.), «Laino jendea eta os- tarte jendea» (48 or.), «Aurrera (...) Haur- rera» (62 or.). Halaber, intertestualitateaz eta beste idazle batzuk omentzeaz gain (Gloria Fuertes, Zarko Petan, Mishima,

Harkaitz Cano), tonu arina hautatu du gogoeta hauetan, Cioranen, esate baterako, se- riotasunetik, gravitas-etik, urrunduz. Horren orde- z, eguneroko detaile- en behaketaz (aterkiak, ChatGPT, argazki karreteak, etxeko tresnak) eta umorez hornitzen ditu, eskertze- koa dena: «Aforistak pentsa- menduaren karatekak dira: ostikada bat, egia bat» (17 or.).

Ezin dira, azkenik, aipatu gabe utzi Andrea Olaitz Gartzia- k eginiko marrazkiak, xa- lotasuna eta fintasuna gehi- tzen baitizkiote Zuberoa Gar- mendiaren aforismoen bildu- mari.

SALDUENAK

FIKZIOA

- 1 **Pleibak** Miren Amuriza. Susa.
- 2 **Amorante frantsesa** Miren Agur Meabe. Susa.
- 3 **Miñan** Amets Arzallus-Ibrahima Balde. Susa.
- 4 **Iragan atergabea** Julen Belamuno. Elkar.

EZ FIKZIOA

- 1 **Sendatzeko ametsak** Pello Añorga. Balea Zuria.
- 2 **Haizearen erpeak** Ane Elgezabal Odriozola. Elkar.
- 3 **Luis Lizarraga kapitaina** Juan Luis Larraza Lakunza. Nabarralde.
- 4 **Arrakasta** Jasone Osoro. Elkar.